



# DENA PREST LEHENGOKO ALEGIARA ITZULTZEKO

Igande honetan, mende bat inguru egingo dute alegiarrek atzera, eta garai hartako bizimodua irudikatuko dute » 5

TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO

# hitza



Asteartea  
2009-06-02

VII.URTEA 1.717.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Goian, sukaldariak bisiguak prestatzen Zerkausion; behean, estropadak Zerkausiaren inguruan. HITZA / IYUYA URRUTIA

## BISIGUAREN FESTA ETA AIZ-ORRATZEN JAIA «ARRAKASTATSUAK» 2-3



Era guztietako lanak topa zintezkeen herenegungo azokan. I. URRUTIA

## Artisau Azokarekin, agur aurtengo Kultur Asteari

LEITZA XXXI. Artisau Azoka ospatu zen herriko plazan; postu ugari izan ziren ikusgai 7

**Bertso Paper**  
lehiaketako  
sariak banatu  
dituzte

TOLOSA 6 lan saritu dituzte;  
150 lan aurkeztu dituzte 2

**Joseba Otaegik**  
«uste baino  
errazago»  
irabazi du

ZIZURKIL Aizpururen aurka  
apustua izan zuen igandean 6

aldaketa  
POLITIKO ETA SOZIALAREN ALDE

bozkatu  
www.iniciativainternacionalista.org

★  
iniciativa  
INTERNACIONALISTA

gaur

• ZARAUZ Ekitaldia 19:30 Frontoi zineman

- PASAI ANTZO Propaganda banaketa 19:00 Zumardian
- AZPEITI Propaganda banaketa Azokan
- ALGORTA Ekitaldia 19:30 Telletxen
- GETXO Ekitaldia 19:30 Algortako Telletxen
- GASTEIZ Kotxe karabana 18:30 Mendizabalako aparkalekutik

bihar

• BILBO Hitzaldia 19:00 Arrupe etxean  
(Antonio Sarda hautagaia eta Arnaldo Otegi gonbidatua)

- LAUDIO Kotxe karabana 18:00 + hitzaldia Amurrioko plazan
- AMURRIOA Kotxe karabana 18:00 + hitzaldia plazan
- LIZARRA Ekitaldia 20:00 kontserbatorioan
- TXANTREA Ekitaldia 19:30
- EIBAR Propaganda banaketa merkadilloan
- SORALUZE Propaganda banaketa merkadilloan
- LEKEITIO Ekitaldia 19:30 Independentzia plazan
- ELORRIO Ekitaldia 19:30 Arriola aretoan

etzi

• BILLABONA Ekitaldi kulturala 18:00 Gurea antzokian

- TAFALLA Ekitaldia 19:30 Kube diskotekan
- IRURTZUN Hitzaldia 19:15 Udaletxean
- ELGOIBAR Propaganda banaketa merkadilloan
- PASAI ANTZO Kotxe karabana 19:30 Luzuriagatik
- OREETA Kotxe karabana 19:00 Masti Loiditik

SPOT  
ELEKTORALAK

ekainak 2  
asteartea  
10:30 ETB 2

ekainak 4  
osteguna  
10:30 ETB 2

# «Espero baino arrakastatsuagoa» izan da Orio Estilora Bisiguaren Festa

**Gastronomia** » la 600 lagun izan dira asteburuan Zerkausian; datorren urtean ere errepikatu egingo dute festa.

## ERREDAKZIOA

Txinparta elkarteak Tolosa Gourmetekin batera antolatuta, Orio Estilora Bisiguaren Festa izan da asteburu honetan Zerkausian estreinakoz. Guztira ia 600 lagunek jan zuten bi egunetan, beraz, «espero baino arrakasta handiagoa» izan du, eta ondorioz, datorren urtean ere jarraipena izango du ekimen berri honek.

Txinparta elkarteak Joxe Mari Etxeberriak azaldu duenez, «oso gustura geratu gara festak izan duen harrerarekin, eta parte hartu dutenengatik ere horixe jaso dugu, hau da, oso pozik, gustura, izan direla».

Larunbatean, 360 lagun izan ziren afaltzen, eta igandean, berriz, 215. Larunbateko gehienak tolosarrak izan ziren, baina igandekoan beste herrietatik etorritakoak, Orio esaterako, ere baziren. Bazkari eta afarirako txartelei dagokionez, hauek salgai jarri eta



la 600 lagun inguru izan ziren asteburuan Zerkausian. HITZA

handik egun guxira saldu ziren guztiak.

## Giro polita Zerkausi inguruan

Larunbateko afarian giro polita izan bazen zer esanik ez igandeko bazkarian. Izan ere, Bisiguaren Festa Aiz Orratz elkartearen urteurreneko festarekin batu zela esan daiteke. 75 urte betetzen dituen Tolosako elkarteak estropada festa antolatu zuen herenegun,

Orio eta TAKen arteko eta Emendeketa Aiz Orratz elkartetako bateranoen arteko desafioekin, eta Zerkausiko bazkarian ere izan ziren ondoren. Beraz, bazkari legea hasi baino lehen, eguerdi aldera sortu zen festa Zerkausiaren inguruan. Eta horretaz gain, txarangen doinuak ere ezin ahaztu, goizetik hasi baituzten hauek euren lana egiten, eta giroa alaitzen jarraitu zuten bazkarian ere.

## Hurrengo urtean bigarrena

Aurtengo «arrakasta» ikusita datorren urtean bigarrena izango dela azaldu du Etxeberriak. Hori bai, lehenago hona Bisiguaren festa etorri den bezala, irailean Orion txuletarena egingo dute, eta han izango dira Tolosako sukaldariak guztia prestatzen.

Gurean, gastronomia artean bada, badirudi krisia, une batez behintzat, ahaztu egingo zaigula.

## Galtzaundik Txilipurdika ludoteka antolatu du uztaierako

### ERREDAKZIOA

Galtzaundi Euskara Taldeak urtero bezala euskarazko ludoteka antolatu du uztaieraren 1etik 30era. Asteleheneetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara, jolasak, eskulanak, irteerak, igerilekua, ipuin kontalaria, San Fermin txiki eguna... izango dituzte haurrek, besteak beste.

3 urtetik 10 urte bitartekoei zuzendua dago. Izena eman nahi dutenek Galtzaundiko egoitzan (Nafarroa etorbidea, 6 behe) egin ahalko dute, edo bestela, 943 655004 zenbakira deitu daiteke. Haur baten matrikula 80 euro ordaindu beharko da, bi haur rena 130, eta hiru haurrena, 160. Horretaz gain, igerilekura joango diren haurrek 15 euro gehiago ordaindu beharko dute. Pasa den urteko ludoteketan, esaterako, 80 haurrek eman zuten izena.

Galtzaunditik azaldu dutenez, ludotekako begirale izateko aukere ere badago. Informazio gehiago bulegoan izango dute.

## T Telefonoak Larrialdia. ((112))

### OSASUNA.

**Alegialdea.** Osasun z.: 943 653212

**Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 943 65 23 39

**Asteasu.** Medikua: 943 692423

**Baliarrain.** Medikua: 943 889003

**Berastegi-Elduain.**

Medikua: 943 683361

**Bidegoian.** Medikua: 943 681134

**Ibarraldea.** Osasun etxea: 943 672411

**Ikaztegieta.** Medikua: 943 653329

**Irura.** Osasun zentroa: 943 690720

**Leitza.** Osasun z.: 948 510800

**Orendain.** Medikua: 943 655595

**Orexa.** Medikua: 943 682228

**Tolosa.**

**Anbulatorioa, larrialdia:** 943 461111

**San Esteban:** 943 006800

**Gernikako arbola:** 943 006900

**Amarozko dispen:** 943 672637

**Asuncion klinika:** 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdia)

**DYA:** 943 672536

**Gurutze Gorria:** 943 674888

**Villabona.** Anbulat.: 943 006970

**Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 943 693930

### GARRAIOAK.

**Renfe:** 902 24 02 02

**Donostiako autobusa:** 943 361740

**Tolosalde bus:** 943 650621

**Leitzaran autob.**: 948 221015

**Taxia:** 943 670420

**Taxia (Leitza):** 608 873016

### BESTERIK.

**Ertzaintza:** 943 538820

**Tolosa-Udaltzaingoa:** 943 675858

**Tolargi:** 943 650016

**Iurramendi egoitza:** 943 670325

**Tolosa gasa:** 943 675320

**Alkoholiko anonimoak:** 943 248474

# Bertso paper lehiaketak baditu sarituak

**Bertsolaritza** » Atzo egin zuten I. lurre Bertso Paper Lehiaketaren sari banaketa; guztira, 150 lan inguru aurkeztu dituzte.

## ERREDAKZIOA

Iurre Bertso Paper Lehiaketa antolatu du aurtin, estreinakoz, Tolosako Iurre elkarteak Gipuzkoako Bertsozale Elkartearen laguntzarekin. Gaztetxoan artean bertsolaritza sustatzea helburu duen lehen esperientzia hau «oso arrakastatsua» izan da elkartearentzat, 150 lan inguru jaso baituzte.

Hain zuzen ere, atzo egin zuten Tolosako udaletxean sari banaketa ekitaldia, eta ondorengoak izan ziren saria jaso zutenak: lehenengoa saria (txapela eta 150 euroko balea) Samaniego ikastetxeko 6. Aiko Iker Gurrutxaga, Danel Intxaurren eta Bertol Muriak jaso zuten; bigarrena (oroigarria eta 100 euroko balea) Hirukideko 6. Dko Leire Alargunso eta Idoia Alonso; eta hirugarrena (oroigarria eta 75 euroko balea) Laskoraino 5. Cko Irati Estarbe, Irene Bengoetxea eta Miren Nazabalek.



Ikasle sarituak eta aipamen berezia izan zutenak, atzo, udaletxean, sari banaketa ekitaldian. I. GARCIA

Hiru sari nagusiez gain, ondorengo hiruek aipamen berezia jaso zuten: Samaniegoko 6. Aiko Izaro Etxaniz eta Nerea Perezek; Hirukideko 6. Bko Jone Galan eta Ainhoa Mendiluzek; eta Samaniegoko 5. Bko Aitor Zurdo eta Endika Garcia de Iturrosek.

Bixente Gorostidi izan zen aurkezle lanetan, Tolosaldeko ikastetxetako arduraduna. **Bertsolaritza**

eta **Ahozkotasuna** proiektuan. Ekitaldian, ikasleez gain, Aitor Mendiluzek bertsolaria, eta Udaleko eta Iurre elkarteak ordezkariek ere izan ziren.

Hiru sari nagusi eta hiru aipamen berezi aukeratzeko ardura izan dutenak hezkuntza arautuan aritzen diren Gipuzkoako Bertsozale Elkarteko zortzi irakasle izan dira.

Tolosako Laskorain Ikastola, Samaniego Ikastetxea eta Hirukide Jesuitinak Ikastetxeko 5. eta 6. mailako neska-mutikoei hartu dute parte lehiaketan. Guztiek ere gai berdina landu dute, hau da, **Bihar oporretara zoaz**, eta bakarka nahiz taldeka aurkeztu ahal izan dituzte lanak. Hori bai, bakoitzak, 2 bertso edo 4 koplak osatu behar izan dituzte.



Oria eta Tolosaldea Arraun Klubekoen arteko estropadak jokatu ziren herenegun. ILYVIA URRUTIA

## Oraindik ere sasoiko dira Aiz-Orratzeko arraunlariak

**Aisia** » 75. urteurrena ospatzen ari da elkarteak; ekitaldien baitan, beteranoen arteko desafioa jokatu zuten.

### ERREDAKZIOA

Aiz Orratz-Veleta elkarteak 75 urte bete ditu aurten, eta urte guztian zehar ekitaldi ugari ari dira ospatzen. Baina, handienetako bat, herenegungoa izan zen. Garai batean, elkarteak zuen arraunerako afizioa berreskuratzu, estropadak jokatu zituzten Oriai bai.

Oria eta Tolosaldeko Arraun Klubekoen arteko lehia izan zen lehendabizi. Bost estropada jokatu zituzten. Bitan neskak izan ziren

protagonista, eta besteetan, maila ezberdinetako mutilak. Ondoren etorri zen hala ere gehien itxarondako desafioa. Emendek eta Aiz-Orratz elkarteetako arraunlariak beteranoak aritu ziren lehian, uretan. Nahiko parekatuta hasi zuten jardunaldia, baina ondoren, Aiz-Orratzekoek aurre hartu zieten Emendekekoei eta garaile izan ziren. Gustura geratu ziren Aiz-Orratzeko arraunlariak eta sanjoanegi begira, jaietan jokatzeko den txapelketan parte hartzeko asmoa agertu zuten. Eguraldiak ere lagundu zien festa girora bildu zirenei, eta jende ugari bildu zen ibaierantz.

Festari amaiera mahaiaren bueltan eman zioten. Zerkausian elkartu ziren berrehun lagunetik

gora, elkarteak antolatutako bazkari herrikoian. Bertan izan ziren, besteak beste, goizean lehian aritutako arraunlariak.

Bestalde, igandeko ekitaldian, Juanito Lizarralde *Altzerri* eta Ramon Amonarriz, arraunaren alde egindako lanagatik omenalditxo bat egin zieten. Lehendabizikoa, elkarteetako arraun taldearen entrenatzaile izan zen duela urte batzuk, hau, punta puntan, maila altuenean zebilen garaian. Bestetik, Amonarriz izan zen kirol hau Tolosaldeko elkartera ekarri zuen lehendabiziko arraunlaria.

Ekitaldi hauek guztiak alaitzeko asmoz, txarangak eskainitako doinuak entzun ahal izan ziren ibaierantz eta oro har, herriko kaleetan.



## Mertensen piano doinuak Leidorren

**KULTURA** » Wim Mertensek bere azken lana aurkeztu zuen joan den larunbatean, Leidorren. Bi ordu inguru iraun zuen emanaldiak, eta jendearen txalo zaparrada handiarekin amaitu zuen. *L'heure du loup* laneko kantauk eskaini zituen. Duela gutxi kaleratu du disko hau,

eta pinentsulan eskaintzen zuen lehen aurkezpen kontzertua izan zen Tolosaldeko. Mundua Tolosan zirkloaren baitako hurrengo kontzertua larunbat honetan izango da. Oraingoan, Dulce Pontes izango da Leidorreko eszenatoki gainean. NEKA



## Hirukideko neskak txapeldunorde

**ARETO FOTBOLA** » Pasa den asteburuan, Hirukide ikastetxeko alebin nesken taldeak Gipuzkoako Txapelketako finala jokatu zuen Azpeitiko Ikasberrikoen aurka. Norvehiagoka Ibarrako kiroldegian izan zen. Partida oso lehiatua eta gogorra izan zen, launako berdinketarekin amaitu ostean, penaltietan galdu egin zuten eta txapeldunorde bezala geratu ziren. HITZA

## Laburrak

### Aiton-amonentzako festa, bihar Hirukide ikastetxean

**GIZARTEA** » Biharko Hirukide Gainberrin, Hirukideko 2 urteko geletan dauden ikasleen aitona-amonentzako festatxo bat antolatu dute. 16:30ean hasiko da jaialdia. Honekin, haurren aitona-amonen laguntza errekonozitu nahi dute.

### Asteburuan salgai, koadrila egunerako txartelak

**AISIA** » Sanjoanetako Koadrila Eguneko bazkarirako txartelak salgai daude jada. Bi asteburutan egongo dira. Honetan, Orbelatubarnan, hilaren 5ean, ostirala, 19:00etatik 21:00etara erosi ahal izango dira; eta ekainaren 6an, larunbata, 12:00etatik 14:00etara.

## Gutunak

### Iurreamendiko Zuzendaritza batzordeaz

Iurreamendiko Zuzendaritza Batzordean Tolosaldeko elkarte eta entitateen ordezkari izateko gure kandidatura dela eta:

Ordezkaritza izendatu gintuzten Plenoan (bost hautagaietatik hiru baztertu egin zituzten baldintzak betetzen ez zituztelako) adierazi genuen izendapena ez genuela onartuko honako arrazoi honengatik: ez geundela konforme hautaketarako arautegiarekin. Gure ustez, arau horiek bidezkoak ez izateaz gainera, antidemokratikoak ziren. Eta ordezkarien hautaketa arau horietan oinarrituta zegoenez, gaia mahai gainean uztea eskatu genuen aipameneko Plenoan.

Geroztik, gaur arte, Tolosaldeko lau elkarte eta kolektibok agertu dute interesa gaiaz, guregana joz. Hain zuzen, eskatu digute berraztertze gure erabakia (izendape-

nari uko egitea), beraiek (Harizpe, Iturriza, Zahartzaro Duina eta Beti Gazteak) ondo ikusten dutelako gure iritzia.

Zuzendaritza Batzorde honen azkeneko bilera aztertu eta baloratu zen kolektibo horiek egin diguten planteamendua, eta erabaki zuen onartzea ordezkari izateko konpromisoa, orain arte defenditu dugunarekin koherentsiaz jokatzu, hau da, Iurreamendiko Juntan egon behar duenak herriko entitate eta kolektiboek aukeratu eta babestuta egon behar duela.

Ildo horretatik, laster, Lan Talde bat sortuko dugu aipatu ditugun kolektibo horiekin eta Amarozko Auzo Elkartearekin (parte hartu nahi duen edonori irekia), gure sibilitateen barnean Iurreamendiko eta bere egoiliarren aldeko ekimenak eta proiektuak planteatu eta bultzatzeko.

**Amarozko Auzo Elkarteak.** Tolosa.

**@ Eztabaida.** Gazumen parke eolikoa egiteko proiektua aurrera doa. Zer iritzi duzu? Alde zaude? Kontra? Zergatik. Sartu TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkariaren webgunean eta eman zure iritzia gai honen inguruan. Zer pentsatzen duzun jakin nahi dugu.

[www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info)

## Iragarki laburrak

### SALGAI

■ **Taxi lizentzia.** Tolosaldeko taxi lizentzia saltzen dut. Informazio gehiago nahiz izanez gero deitu 616 54 29 60ra.

## L Laburrak

### Etorkinen integrazioari buruzko saioa, gaur Orixen

**TOLOSA** ■ Orixetik ikasleen gurasoei zuzenduriko saioa antolatu dute gaurko. Bertan etorkinen integrazioari buruz aurrez gurasoek betetako inkestaren inguruan ariko dira 18:30ean, Orixeko E-gelan (Gor-sabel eraikuntza). Dinamizatzaile lanean SOS Arrazakeria taldeko Anna Stern ariko da. Orixetik «gaiaren garrantzia dela-eta» gurasoen parte-hartzea eskatu dute.

### Sexualitate hezkuntzari buruzko lehen saioa, gaur

**TOLOSA** ■ Samaniegok sexualitate hezkuntza tailerra antolatu du Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleentzat eta hauen gurasoentzat. Samaniego ikastetxean bertan egingo dute tailer hau, eta Harremanak Heziketarako kolektiboa izeneko talde profesionalaren eskutik garatuko da. Hauek bi orduko hiru saio zuzenduko dituzte; hain zuzen, gurasoentzat gaur bertan, ekainaren 9an eta 16an egingo dituzte, erabilera anitzeko gelan, 17:00etatik 19:00etara.



## «Nafar estatua» aldarrikatu dute

**GIZARTEA** ■ Nafarroako bandera bigarren urtez zutitu zuten herenegun Ausa Gaztelun, «nafar estatua» aldarrikatu baitzuten bertan. Jende ugari bildu zen mendian, eguraldi eder batez lagundurik. Nafarroako Gorteen

ereserkia entzun ahal izan zen mendian txistuen doinuaz eta aurten ere kantatu egin zuten. Komunikatua ere irakurri zuten ondoren eta bukatzeko, bertso pare bat bota zituzten. Erribera kantua ere entzun ahal izan zen. «Askotan saiatu arren ezin izango dute hemen herri bat badela ezkutatu, mintza eder hau isildu, bistakoa zaiguna itsutu, ez eta, argi asko daukaguna lausotu ere», adierazi zuten antolatzaileek. HITZA

Euskarazko lehen sukaldaritza bilduma!



PINTXOAK

A. Fagoaga  
Alba  
Andra Mari  
Bergara  
Borda Berr  
Casa Virginia  
El Lago  
Hidalgo 50  
La Cuchara de San Telmo  
M.ª Carras  
Narra  
Tumbé  
Zurak

1. alea

berria

harpidedun eta irakurleek erdi prezioan: 12€

Liburua eskuratu nahi baduzu deitu **943-30 43 45** zenbakira ekainaren 14a baino lehen. Astebeteren buruan postaz jasoko duzu.

Laguntzailea:

**FAGOR**

www.fagor.com

Aukera ezazu. BIZI euskaraz

berria

## Ingurumenaren Eguneko ekitaldiak

**Amezketak** ■ Zine-kluba, ibilaldiak, tailerrak eta erakusketak izango dira, besteak beste, Nazioarteko Egunaren harira.

### ERREDAKZIOA

Amezketako Udalak datorren ekainaren 5ean, ostiralarekin, ospatuko den Ingurumenaren Nazioarteko Egunaren inguruan hainbat ekitaldi antolatu ditu. Bihar bertan izango da lehena, 18:00etan zine-kluba izango baitute. Hain zuzen ere, Umeei zuzenduriko *El lince perdido* animaziozko filma emango dute erabilera anitzeko gelan.

Ekainaren 5ean ere, ostiralarekin, zine-kluba saioa egingo dute, 20:00etan, *Cenizas del Cielo* filmaren eskutik, erabilera anitzeko gelan.

Larunbaterako ere ekitaldiak izango dituzte; hala, goizeko 10:00etan Zumadi herri eskola-Berazegako erreka-Altun goena-San Martin ermita mendiri irteera antolatu dute. Ibilaldiak ordu bete inguru irauango duela aurreikusitako Udaletik eta «irekia izango da parte hartu nahi duen guztiarentzat». Hori bai, bakoitzak bere ha-

maiketako eramatea gomendatu dute.

Igandea ere egun osatua izango da. Egun guztian zehar, udaldefte azpiko pasabidean Eguzki-labeen erakusketa eta tailerra antolatuko dituzte ISFren (Mugarik gabeko Ingeniaritza taldearen) eskutik, 11:00etatik 14:00etara bitarte.

Ondoren, 15:00etatik 18:00etara bitarte Eguzki-labeak eraikitze tailerra egingo dute. Edonork parte hartu ahal izango du jarduera honetan. Aldez aurretik taldeak antolatu ahal izateko interesa dutenek izena eman beharko dute 689748176 (bertan Leirengatik galdetu) telefono zenbakira deituta.

### Poltsa berrerabilgarrien banaketa aste osoan

Halaber, Aste Berdearekin lotuta, aste guztian zehar telazko poltsa berrerabilgarriak banatuko dituzte herritarren artean, «hauek erosketak egiterako garaian erabil ditzen».

Ekimen honekin Udalak «askotan zakarrontzian amaitzen duten plastikozko poltsa gutxiago erabiltzea» lortu nahi du.

# 'Garai bateko Alegia' jaierako dena prest, herria eraldatu egingo dute

**Alegia** » Igandean duela mende bat inguru ia arruntak ziren lanbideak eta bizimodua ikusteko aukera izango da.

## ERREDAKZIOA

Datorren igandean Alegian jai bitxia bezain erakargarria izango dute: *Garai bateko Alegia*, Kultur Batzordearen eskutik. Hilabete askoren antolakuntzak forma hartu du eta emaitza igandean ikusiko da, gauza asko ikusiko da. Helburua herrian garai batean nola bizi ziren ikustea duen jai hau goizetik hasiko da, 10:30 inguruan, hain zuzen ere.

Kalejira, lanbide bereziak, ezkonberriak, bazkaria eta erromeria izango dira, besteak beste. Hau guztia aurrera eramateko herritar askoren laguntza eta parte-hartzea ezinbestekoa izan da. Hauetaz gain, herriko hainbat talde ere ariko dira: Dantza Taldea, Txintxarri abesbatza, Loatzo musika eskola, Guraso Elkateko kideak...

11:00etatik aurrera ordu pare bat lanean pasa eta gero, festak hartuko du lekukoa, «herriko bi bikote gazteren ezkontza ospatzeko aitzakia badute eta». Kalebheherako Santo Kristo ermitatik aterako dira ezkonberriak arreo eta guzti. Herritarrek joango zaizkie bila, eta handik, denak plazara itzuliko dira, bertan herri bazkaria egiteko. Dagoeneko ezin da izena eman bazkariara joateko, eta guztira 250 lagunetik gora izango dira. Bazkalostean aurrera egingo du festak, kontuan eta dantzan.

## Era guztietako lanbideak

Txorroskileroa, mikelleteak, apaiza, idazkaria, argazkilaria, margolaria, suhiltzailea, esnezalea, baserriarrak, ikazkina, makilariak, musikariak, garai bateko ume jolasak, automobil zaharrak... ikusteko aukera izango da parte hartuko duten lagunei esker. Herriko txoko desberdinetan banatuko dira, eta zer ikusi egongo da leku guztietan.

Tabernak, denda, sukaldako lanak ere izango dira: mamia egiten, artoa eta babarruna aletzen... eta talogileak ere bai. Guztia, ahaztu gabe, orduko janzkerarekin.

Bizikleta konpontzailea, laboreak, xaboa egiten eta arropa garbitzen ariko dira batzuk, zehazki Ka-



Alegiako udaletxeko arkupean zahagi ardoa, festetan. Hau da mantentzen den ohituretako bat... EDU ARRAYET

## » IGANDEKO HAINBAT DATU

### Egitaraua

- **10:30.** Bandoa Zazpi Astoren Gainean bertso eskolakoekin.
- **11:00.** Kalejira.
- **11:00-13:00.** Lanak eta eginkizunak.
- **13:00.** Ezkonberriei ongietorria.
- **14:00.** Herri bazkaria eta erromeria.

### Txokoz txoko

- **Kalean gora eta kalean behera.** Txorroskileroa, mikelleteak, apaiza, idazkaria, argazkilaria, margo-

lebeherako paseoa. Benetan bitxia dira lanbide eta lanak, egun ikusten errazak ez diren horietakoak.

Izenak adierazten duen moduan, «garai batean gure herria nolako zen eta bertan zer bizimodu egiten zen gogoratu nahi dugu» ekimen honen bitartez. Tresna zaharren erakusketa egiteko ideia lantzen hasi ziren urte hasieran Kultur Batzordean, eta «abiapuntu hartatik etorriko da esku artean dugun proposamen hau», ehunka herritar bilduko dituen egun oso festa, hain zuzen.

### «Modu batera edo bestera, herritarren parte-hartzea»

Egitarauaren barruan «inprobisazioari ere lekua egin nahi diogu». Horregatik, «deia egiten diegu alegiarrei irudimena astindu, arropa zaharrak jantzi —egunak eskatzen duen moduan jantzea oso garran-

laria, suhiltzailea, artzaina, esnezalea, baserriarrak, ikazkina, makilariak, musikariak, dantzariak, garai bateko ume jolasak, moto eta automobil zaharrak... ibiliko dira.

- **Bulebarrean.** Toka, ohe zaharra astintzea eta jostea, artzaie ardiei ilea moztzen, baserriarrak sega pikatzen...
- **Plazan.** Tabernak, denda, sukaldako lanak: mamie egiten, artoa eta babarruna aletzen...
- **Txintxarri plazan.** Zurgina, kandelagileak, txintxarrigilea.

tzitsua dela gogoratu nahi dugu— eta kalera ateratzeko, modu batean edo bestean parte hartuz».

Alegia bezalako herri batentzat «erronka handia da horrelako jai bat prestatzea, baina herritarrek

### Tresna zaharren erakusketa egiteko ideiarekin jaio zen igandeko proposamena

erantzuten dutenean, dena da posible». Harrera oso ona izan du igandekoak, erantzun handia. «Esan behar da, gainera, inguruko

■ **Paseoa.** Kalebhehera aldera bizikleta konpontzailea, laboreak, xaboa egiten eta arropa garbitzen.

### Parte-hartzaileak

- **Antolatzailea.** Kultur Batzordea.
- **Parte-hartzaileak.** Dantza Taldea, Txintxarri abesbatza, Loatzo musika eskola, Zazpi Astoren Gainean bertso eskola, Guraso Elkateko kideak, Txintxarrisferako lagunak, Argazkizaleen Taldea... eta noski, herritarrek.

herrietatik ere hainbat lagun etortzekoak direla eginkizunetan parte hartzera».

### Eguraldi txarrenekin bertan behera

Jaiaren ezaugarriak kontuan hartuta, eguraldi txarra izanez gero festa bertan behera geratuko litzateke. Kasu horretan, Kultur Batzordeak eguna baino lehen emango du erabakiaren berri, eta jai bere horretan beste egun batera atzeratuko dute. Lan eta interes handia erakutsi dute alegiarrek igandeko jai aurrera ateratzeko, eta horregatik soilik, mereziko du.

## Laburrak

### 'Zaintzailearen zainketa' hitzaldia izango da etzi

**IKAZTEGIETA** • Etzi 17:00etan, Kutxako Gizarte Ekintzak antolatutako hitzaldi bat izango da Ikaztegieta Udal Liburutegian: *Zaintzailearen zainketa*. Helburua mendeko pertsonen zaintzaileen kontzientzia maila handitzea da, haiek ere beren buruak zaintzen ikas dezaten, euren lana baldintza fisiko eta psikiko onargarri batzuetan garatu ahal izan dezaten. Gogoan eduki behar dituzten alderdi nagusiei buruzko jarraibide batzuk eta bete beharreko gomendioak emango dira: zaintzailearen eginkizunetara egokitzeko faseak, bere emozio eta sentimendu nagusiak...

### Festak antolatzen hasteko bilera egingo dute gaur


**AMEZKETA** • Gaur 20:30ean, Amezketako balioanitzeko gelan festan inguruko bilera egingo dute. Abuztuko festak prestatzen hasteko asmotan, ideiak, proposamenak, zein iradokizunak bilduko dituzte eta egitarauari forma emanango diote. Bileran irekia izanik herritar guztiak daude gonbidatuta.

### Hilabete batez begirale izateko deia luzatu dute


**IRURA** • Irurako udal begiraleak kontratatu behar ditu Goiza Pasa udaleku irekietarako, hilaren 22tik uztailaren 30era arte, goizez, jardunaldi erdiz aritzeko. Parte hartu ahal izateko beharrezkoa da 18 urte beteak izatea eta euskaraz jakitea (EGA maila edo baliokidea). Hautagaien aukeraketan, kontuan hartuko da Irura ezagutzea, aisialdiko edota hezkuntzako ikasketak egokitzea eta eskarmentua izatea arlo horietan. Interesatuak kurrikulumak eta gaitasunen egiaztagiriak aurkeztu beharko dituzte hilaren 12ra arte udal bulegoetan.

### Kultur Astearen baitan, erremontistak ostiralean

**ALBITZUR** • Datorren ostiralean, 20:00etan hasita, Albizturren erremonte jokalariek izango dira kirol honen inguruan mintzatzeko. Kultur Asteko ekitaldi honetan, erabiltzen duten materiala ere eramango dute, erakusteko.



**TOLOSAKO  
INMAKULADA  
IKASTETXEA**



Kondeko aldapa 5B Tolosa  
www.inmakuladatosola.com  
943673629

**HEZIKETA ZIKLOAK**

**Goi maila**

- Gizarte Integrazioa
- Haur Hezkuntza
- Osasun Dokumentazioa
- Diagnosi Irudia

**Erdi maila**

- Erizaintza laguntzailea
- Farmazia teknikaria

**AURREMATRIKULAK  
EKAINAK 1-12  
BITARTEAN**

**ZATOK GU EZAGUTZERA**



**20 URTE ZUEN  
ZERBITZURA!**

**ORAIN...**  
Eskolapiotako Lorategiak Iean  
Tolosa • 943 67 45 26



Joseba Otaegi ezkerrean eta Josu Aizpuru eskuinean, Azpeitiko zezen plazan. ALICIA GÓMEZ

## «Uste baino errazago» irabazi du Otaegik apustua

**Zizurkil** » Hasieratik hartu zion abantaila aizkolari zizurkildarrak nuarbetarrari eta hortik aurrera «eroso» aritu zen aizkoran.

IMANOL GARCIA

Ikusmina sortu zuen Joseba Otaegi zizurkildarraren eta Josu Aizpuru nuarbetarraren arteko aizkora apustuak, baina enborrak ebakitzen hasi eta gutxira ikusi zen zeinek irabaziko zuten. «Hasieratik abantaila ateratzen nion», dio Otaegik, «eta gero eroso aritu nintzen. Ikusten nuen ez zidala abantaila jaten eta uste baino errazago irabazituen».

Txapelketan ez bezala, apustuetan nahi duzun egurretatik hasi daitezke eta Otaegik egur onenetik hasia erabaki zuen, goxo hasteko. «Bera beste egur batetik hasi zen eta ezberdintasun pixka bat baze-

goen eta hortik hasi nintzen abantaila hartzen. Ez nintzen denak emanda ateratzen hasieratik, bero handia egiten zuen ere...».

Zizurkildarra «gustura» aritu zen aizkoran. «Ebaketak ziurtatzea joan nintzen eta behin ikusita abantaila nuela, gauzak ondo egitera eta ziurtatzea joan nintzen». 43 minutu eta 50 segundo behar izan zituen Otaegik lana bukatzeko, Aizpuruk baino zazpi minutu gutxiago. Denbora horretan ibiltzea espero zuen, behin nolako enborrak ziren ikusita. «Hasi aurretik ez da jakiten, ez dakizulako nolako enborrak izango diren», dio Otaegik. «Pentsatzen nuen egur gogorrek emango zituela, baina egur onak eman zituen eta denbora horretan ibiltzea genuela bazi-rudien». Materialak zeresan handia du aizkoran. Egur gogorra denean zailagoa izaten da zuzen ematea, aizkorak aldegin egiten du.

**Orain, atsedena**

Mila lagun inguru joan ziren apustua ikustera, horietatik 900 inguru sarrera ordainduta. Aurrera begira erakustaldiak eta txapelketak ditu Otaegik. «Orain pixka bat atsedena hartuko dut. Apustuaren aurreko hilabeteak, eta eguna batez ere, tentsio handikoak izaten dira eta orain atsedena hartzeko gogoak daukat».

Aurkariarekin hitz egiten izan zen Otaegi apustuaren bukaeran. «Hasieratik ez zela batere eroso egon esan zuen eta ez zuela bere onena eman. Plazan gutxi aritutakoa da eta horrelako egun bat iristen denean, nahi edo ez beti nerbioek eragiten dizute». Apustuetan irabazterak bakarrik ez, «irudi ona ematera ere» joaten zarela dio Otaegik eta horrek buruari «asko exijitza ekartzen du». Aizpuruk aizkoran jarraitzen badu, «asko egingo duela» uste du aizkolari zizurkildarrak.

## Hegaztiak behatzen ikasteko ikastaroa Aste Berdearen baitan

**Zizurkil** » Gaur eta bihar izango dira ikastaroaren saioak Atxulondon eta egun bakoitzean bi orduz ariko dira.

ERREDAKZIOA

Aste Berdearen ekitaldien baitan, Zizurkilgo Atxulondo kultur etxean hegaztiak behatzen ikasteko ikastaroa antolatu dute Zizurkil eta Villabonako udalak. Gaur eta bihar izango dira ikastaroaren emanaldiak eta hegaztiak gustuko izan baina ezagutzarik ez dutenentzako zuzendua da.

Bertan, Villabona eta Zizurkil dabilzan hegaztiak ezagutu, hegazti-espezieak identifikatzeko teknikak, hegaztiak behatzeko erabiltzen den tresneriaren erabilpena eta Euskal Herrian dauden hegaztiak behatzeko toki egokienak ezagutzera emango dira. Ikastaroak parte-hartzailea hegaztien munduan motibatu eta erakartzea du helburu. Lau orduko iraupena du eta 19:00etatik 21:00etara izango da. Informazio gehiago nahi duenak Zizurkilgo Udalera deitu



Uhalde enararen bi txita. HITZA

behar du, 943 69 10 12 telefono zenbakian.

**Uhalde-enararen kudeaketa**

Aste Berdean ere beste ekitaldi bat izango da hegaztiaren lotura duena. Jon Etxezarreta Aranzadi Zientzia Elkarteko kideak hitzaldia emango du Zizurkilgo uhalde-enararen kudeaketaz. Etzi izango da, 20:15ean, Atxulondo kultur etxean.

Uhalde-enara arriskuan dagoen eta Euskal Autonomia Erkidegoan kalteberatzen josten den espeziea da. Zizurkilgo Oria ibaiaren bide-erantz lanetan egin den paretan hegaztiari ugalketan laguntzeko egin diren lanen azalpenak emango ditu Etxezarretak.

## Jaietako egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketa abian

**Villabona** » Lanak aurkezteko epea hilaren 19an amaitzen da; 300 euroko sari bakarra emango du epaimahaiak.

ERREDAKZIOA

Jaietako egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketa abian jarri du Villabonako Udalak. Herriko edozeinek har dezake parte eta edozein formatutan izan daitezke:

pintura, argazkia, collagea... Bestalde, gutxieneko tamaina 18x24 zentimetrokoa izango da.

Lehiaketaren gaia, noski, Santiagoko jaiak izango dira eta aurkezten diren lanetan ondorengo testua azaldu behar du: «Villabona-Santio Jaiak-Uztailak 2009». Lanak inoiz argitaratu gabeak izan beharko dira. Epaimahaiak sari bakarra emango du eta 300 eurokoa izango da. Lanak udal bulegoetan aurkeztu behar dira eta epea hilaren 19an amaitzen da.

## Hilberria

**JON RUEDA OUTEIRAL**  
(gaztea)

Agur Jon,  
gure bihotzetan  
betirako geratuko da  
eman diguzun maitasuna

PASAIA  
2009ko  
ekainaren 2a

Karmengo Ama Ikas Komunitatea

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan  
DOAN agertuko da

**HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle**

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak



XXXI. Artisau azoka ospatu zuten herenegun Leitzan, Kultur Astearen azken ekitaldia. IYUYA URRUTIA

## Artisau azokarekin agur esan diote aurtengo Kultur Asteari leitzarrek

**Leitza** » Kultur Elkarteko kideek balorazio «positibo» egin dute, jende askoren presentzia azpimarratu dutelarik.

### ASIER IMAZ

Leitzako XXXI. Kultur Astea Artisau azokarekin amaitu zen herenegun. Eguraldi onaren laguntzaz, jende ugari elkartu zen azken egun honetan herriko plazan.

Kultur Elkarteko kideek balantze «positibo» egin dute, hortaz.

**Artisau azoka jendetsua**  
Ohi bezala, Kultur Astea Artisau azokarekin agurtu zuten leitzarrek. Antolatzaileen esanetan, jende gehien hurbildu zen eguna izan zen herenegungoa, «zalantzarik gabe».

Herriko plazan 50 postu inguru jarri zituzten Euskal Herri osotik gerturatutako artisauak. Hauen artean, berezitasun bezala, Portugaldik etorritako agure bat aurkitzen zen: «Leitzan Portugaldik etorritako gazte batzuk bizirik dira. Iragan urtean Artisau Azoka eza guttu zuten eta aurten, propio, euren aitona artisaua ekarri dute egurrekin egindako lanak erakustera».

**Parte-hartzearekin ere gustura**  
Oro har «nahiko gustura» gelditu dira Kultur Astearekin antolatzaileak, jendearen parte-hartzearekin «oso pozik» daudela aipatu dutelarik: «Jende ezberdin dezente ibili da egun guzti hauetan. Bakoi-



Hainbat eskulan ikusteko aukera egon zen Leitzan. IYUYA URRUTIA

tza bere gaien inguruan mugitu da. Akats txiki batzuk ere egon dira, hausnarketarako balio garriak egingo zaizkigunak, teknologia kontuak, batik bat. Gazteen mugimendua ere ia baino murriztagoa izan da. Lehen larunbatean *Gazte Eune* antolatu zuten eta gazte guztiago bildu zen. Hala eta guztiz ere, horrelako gauzak antolatzea ziur esperientzia bezala ondo etorriko zaiela».

### «www.leitzakultura.net»

Aurtengo edizioa web orria inauguratu zuten Kultur Elkarteko kideek. Egun hauetan zehar bisitari ugari izan ditu webguneak, «batzuk gutunak eta gomendioak ere idatzi dituzte». Hemendik aurrera, «denborarekin», Elkarteko kideek Kultur Asteo argazkiak bertan zintzilikatzeko asmoa azaldu dute, [www.leitzakultura.net](http://www.leitzakultura.net) orrian hain zuten ere.

## Nafarroako Herri Arteko Txapelketan Leitzak Uhartea garaitu du

**Pilota** » Jon Jaunarenak Espainiako Federakuntzen Torneoa irabazi zuen herenegun errioxar ordezkaririk garaitu ostean.

### A. IMAZ

Nafarroako Herri Arteko Txapelketan urrats garrantzitsua eman zuen Leitzak iragan ostiralean. Amazabal pilotalekuan, etxeokoei Uharteren aurka garaipena lortu zuten, lehendik eskuetan zuten multzoko lehen postua oraindik eta gehiago sendotuz.

Bestalde, Espainiako Federakuntzen Torneoan Jon Jaunarenak txapela jantzi zuen herenegun 22 urte azpikoekin mailan.

### Tantoetara garaipena

Herri Arteko Txapelketaren bigarren itzulia jokatu da asteburuan. Leitzak ostiralean jokatu zuen Uharteren aurka bigarren partida. Joaneokoa biek berdindu egin zuten, bai partidetara eta baita tantoetara ere. Oraingoan, nahiz eta partidetara berdinketa nagusitu, bina, tantoetara Leitzak garaipena lortu zuen: 69-53.

Xabier Jaunarenak-Jon Jaunarenak 22-6 irabazi zuten; Jon Lezeak-Ander Eskudero 16-18 galdu; Anartz Olanok-Mikel Hernandez 18-7 irabazi eta Iñigo Zubillagak-Mikel Iriartek 13-22 galdu zuten.

### Sagastibeltzaren irakurketa

Pakito Sagastibeltza, Aurrera Pilotalekuko kidea, «gustura» zegoen leitzarrek lortutako emaitzeekin: «Herri bakoitzak bi partida irabazi zituen, ia-ia espero genuen bezala. Baina ezustekoa, guretzat oso garrantzitsua gainera, tantoetara lortu genuen garaipena izan zen. Bi txikiak, Lezeak eta Eskudero, galdu egin zuten baina 16 tanto egin zituzten. Benetan azpimarratzeko mailan aritu ziren. Asteburu honetan Arbizuren aurka jokatu behar dugu. Hemen 4-0 irabazi genuen eta 3-1 edota bina eginda ere aukera handiak ditugu multzoko lehen postuan amaitzeko».


Amazabal pilotalekuan bildutako jendearen inguruan ere mintzatu zen Sagastibeltza: «Erantzuna oso ona izan zen. Luntz antzeko bat ere jarri genuen eta jende ugari elkartu zen pilotalekuan. Ez dakit zergatik baina Leitzan jendea biltzeko ostrial iluntzea garai bikaina izan ohi da».

### Jon Jaunarena nagusi

Aurrerako pilotariak ohi bezala Nafar Jokoak jokatu zituzten asteburuan, Lizarrako eta Elgetako Txapelketekin batera. Denen gainetik ordea Jon Jaunarena azpimarratu behar da. Leitzar gazteak Espainiako Federakuntzen Torneo jokatu zuten, 22 urte azpikoekin mailan. Jaunarenak Torneoa irabaztea lortu zuen, finalean Errioxako ordezkaria 18-6 garaituz.



Jon Jaunarenak Espainiako Federakuntzen Torneoa irabazi zuen herenegun. I. I.



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarra:** 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leizaldea:** 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

**BERTAKO HEDABIDEAK**

eta Tolosaldeko eta Leizaldea beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Deialdiak

- **Amezketan.** Festa batzordearen bilera asteartean balioaitzkeko lan. Abuztuko jaien inguruan egitaraua osatzen ariko dira besteak beste, 20:30ean.
- **Leaburu.** Ekainaren 6an ospatuko duten II. Zaldi Egunerako bazkarirako tiketak 25 eurotan eros daitezke ekainaren 4a bitarte Leaburuko Ostatuan, Trako Astigarragan, Leizako Adur tabernan eta Irurtzuneko Albaitacen.
- **Tolosa.** I. San Joan Mus Txapelketa ekainaren 22an 11:00etatik aurrera Harizpe eta Iturriza elkar-teetako bazkideentzat. Izen-ematea, Iturriza elkartearen (Euskal Herria plaza) 10:00etatik 12:00etara bitarte.
- **Villabona.** Behar Zana elkarteak 63. urteurrena ospatuko du ekainaren 6an eta 7an. Larunbatean 20:00etan afaria (izena eman daiteke elkartearen), 23:00etan danborrada Incansables txarangarekin parte hartzeko bihar arte eman daiteke izena.

### Kirola

- **Villabona.** Ekaiaren 6 eta 7rako Panticosa - Pondiellos - Infierno (3.082 m) - Respomuso - Gran Facha (3.005 m) - Ibones del Pecico - Panticosa irteera antolatuta du Aizkardi mendi elkarteak. Izen-ematea, elkartearen (649 717182).

### Irteerak

- **Ibarra.** Bizi Nahi jubilatuta elkarteak Laredora irteera antolatuta du ekainaren 18rako: 7:45ean abiatu, gosaria Siderria de Liendo jatetxean, enpresa baten aurkezpena, bista gidatua, hondartza, bazkaria, oparia eta dantzaldia. Izen-ematea, elkartearen.
- **Tolosa.** Ekainaren 6rako Nafarroako Astizen dagoen Mendukilo kobazulora eta Iruñera irteera antolatuta du Beti Gazte jubilatuta elkarteak. Izena elkartearen lokalean eman daiteke, ostegun edo ostiralean, 17:00etatik 20:00etara (33 euro). Informazioa, 653 747192 zenbakian.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Ibarra.** Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46. 943 673274.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.
- **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneren eta iritzien erantzunik.

# Datorren urtera arte agur jaiei

**Izaskun** » Bertsolarien saioarekin eta Alurr dantza taldearen emanaldiarekin eman diete amaiera auzokideek festei.

### ERREDAKZIOA

Eta honenbestez amaitu dira Izaskun auzoko jaiak. Eguraldi ona ere enkargatu zuten auzokideek eta horrek asko lagundu du, jendea gehiago animatu baita auzora bis-ta egitera.

Hiru egunetan zehar, hortaz, jai giroa izan da nagusi Izaskunen; horretan lagun dute bertsolariak, erromeriak eta pintxo zein sagardo dastaketek, besteak beste.

### Azken egunean ere ekitaldi ugari

Eguerdian parte hartuak doinuak zabaldu ziren Uzturreko magalean. Anjel Mari Peñagarikano eta Sebastian Lizasok giro ederra jarri zuten beste behin Izaskunen. Ondoren, arratsaldean, Ibarra-ko Alurr Dantza Taldekoek emaldia eskaini zuten eguraldia lagun izan zutelako.

Alurrekoak 4 urtetik 12 urtera bitarteko 140 haurrekin igo ziren Izaskunera eta pieza desberdinak dantzatu zituzten, beti ere Loatzo Musika Eskolako musikariaren doinuek lagunduta. Bukaeran denek Fandangoa eta Arin-arina egin zuten.



Herenegun herri kirol saioa izan zen auzoan: Ostolaza eta Goenatxo harri-jasotzaileak, Unai Otaño eta Olasagasti aizkolariak eta Arantxa, Ainhoa, Ixiar eta Izaskun aritu ziren trontzan; atzo Peñagarikano eta Lizaso aritu ziren. I.U./A.I.

## A Agurrak



### Es nasasu utsi!

**Guk es saitugu utsiko...**  
Musik(oterapi)a zure esku.  
Bazkaria tipula askorekin mesedez.



### Urte askoan!

**Unai Mendez (Anoeta).**  
Gaur 7 egun. Zortea eman diezazula zenbaki majikoak.  
Naroa, aita eta amaren partetik.

## DISEINU GRAFIKO eta sormenean oinarritutako heziketa

Erdi eta Goi Mailako Heziketa Zirkulak



### TITULAZIO OFIZIALAK

Nazioarteko lehiaketak  
praktikak atzerrian

IRUDIZTAPENA . KARTELGINZTA . PUBLIZITATEA .

ARGAZKIGINTZA . BERRUKIPEN DIGITALA . SERIGRAFIA

WEB DISEINUA . MULTIMEDIA . MAKETAGINTZA

www.ceinpro.es  
INFORMAZIOA 943 310 873

Hizirik Pasealekua 95 • 20006 Donostia • Gipuzkoa • Faxa 943 310 876